

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 126/2025 FORU DEKRETUA, abenduaren 11koa zeinaren bidez onartzen baitira 2026ko ekitaldian tokiko, eskualdeko eta lurraldeko euskarazko proiektu komunikatiboak sendotu, garatu eta normalizatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia (Hedabideak deialdia).

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak bere helburuen artean du euskarazko proiektu komunikatiboak sustatzea. Hain zuzen, euskara gizartearen eremu guztietara zabaltzeko ahaleginetan, ezinbesteko deritza tokiko, eskualdeko eta lurraldeko euskarazko proiektu komunikatiboen arloari ekiteari, foru-jarduerari zuzenean lotutako esparru geografikoak baitira eta esparru horietan herritar guztiengana heltzen baita zuzen-zuzenean.

Horretarako, sektore honetan diharduten entitateei laguntzeko dirulaguntza-lerro bat izaten du urtero, entitate horiek beharrezko dituzten baliabide ekonomikoak eduki ditzaten beren lana egin ahal izateko; konpromiso hori 2022ko apirilaren 11n berretsi zen, Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak berak sinatutako hitzarmen baten bidez —zeina administrazio publiko horiek 2019ko maiatzaren 8an sinatutakoaren ondoren etorri baitzen—, euskara hutsezko hedabideen ekintzabidea ziurtatzeko. Administrazioen arteko lankidetzak horri esker, hedabideak diruz lagundu eta haien antolaketa-egiturak indartzeko irizpideak bateratu ahal izan dira. 2025eko urriaren 16ko Erabaki baten bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak onetsi zuen beste hitzarmen bat administrazio berberen artean, eta deialdi hau lankidetzak horren barruan sartuko litzateke.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Eusko Legebiltzarraren 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean oinarritzen da proposatzen den xedapen orokor honi dagokion eskumena; izan ere, lege horrek ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginteen esku uzten dela euskararen erabilera normalizatzera eta garatzera bideratutako neurriak hartzea.

Hala, bada, 26. artikuluan xedatzen du euskal herri-aginteei neurri egokiak hartuko dituztela eta beharrezko bitartekoak jarriko gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko, herritarrek salerosketako, kulturako, elkarteetako, kirolerako, erlijiozko edota beste edozein motatako jarduerak guztiak euskaraz garatzeko aukera izan dezaten.

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Egitura Organikoari buruzko Errege-lamendua onesten duenak, eskumen hau esleitzen dio sail horri: euskara sustatzea eta txertatzea gizartearen alor guztietan.

Horretarako, kontuan hartu dira Herri Aginteei Koordinatzeko Batzordeak (HAKO-BA) eta Euskararen Aholku Batzordeak emandako gomendioak. Azken batzorde hori Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 29. artikuluan aurrez ikusita dago; topagune bat da, hizkuntza-normalizazioan diharduten erakunde publiko nahiz pribatuen lanak eta ahaleginak aztertzea, bideratu eta bateratzeko. Bizkaiko Foru Aldundiak organo bietan parte hartzen du.

Halaber, dekretu honen izapidetzean printzipio hauekin bat jarduten da: premia eta efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, lastertasuna eta efizientzia, herritarren parte-hartzea eta kontu-ematea. Izan ere, hala ezartzen dute Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikulua (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura erregulatzen da) eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua, non printzipio horiek modu orokorrean ezartzen diren.



Azkenik, maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan ezarritakoa betetzen da, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

Bestalde, aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean. Ildo horretan, dekretu honek genero-ikuspegia jasotzen du, bai berau prestatzeko orduan bai beronen aplikazioan, kontuan hartuta zer adierazten den Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan. Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 14ko 112/2024 Foru Dekretuan xedatutakoa. Izan ere, foru-dekretu horren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira.

Azkenik, adierazi behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, dirulaguntzen dekretu hau prestatzean honako txosten hauek egin direla:

1. Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa.
2. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren araberrako eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
4. Kontrol Ekonomikoari buruzko txostena.
5. Legezketasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailerako gaien buruzko foru-dekretuen proiektuak onets ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzak ematea arautuko duten oinarriak onesteko. Eta, azkenik, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Gobernu Kontseiluari dagokiola onestea egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak aztertutik, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra.—*Foru-dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onartzea*

Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak 2026ko ekitaldian tokiko, eskualdeko eta lurraldeko euskarazko proiektu komunikatiboak sendotu, garatu eta normalizatzeko emango dituen foru-dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehenengoa.—*Erregelamendu bidez garatzeko gaikuntza*

1. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuak gaitzen da, foru-dekretu honetan xedatutakoa garatu, gauzatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan. Gaikuntza horren barruan sartzen da dagozkion dirulaguntzak ematea.

2. Halaber, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuari ahalmena ematen zaio eskaerak aurkezteko epea luzatzeko, baldin eta dagozkion sistemaren edo aplikazioaren ohiko funtzionamendua eragozten duen gorabehera teknikoren bat gertatzen bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan aurreikusita dagoen moduan.



Azken Xedapenetako Bigarrena. — Indarrean jartzea

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2025eko abenduaren 11n.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA

Ahaldun Nagusia,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA



**2026KO EKITALDIAN TOKIKO, ESKUALDEKO ETA LURRALDEKO
EUSKARAZKO PROIEKTU KOMUNIKATIBOAK SENDOTU, GARATU
ETA NORMALIZATZEKO FORU-DIRULAGUNTZEN OINARRI
ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA**

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. oinarria. — *Dirulaguntzaren xedea*

1. Foru-dekretu honen babesean diruz lagunduko dira 2026an egindako proiektu komunikatiboak (paperean edo digitalki egindakoak, digitalak eta telebistakoak), betiere haien xede nagusia bada tokiko, eskualdeko edo lurraldeko informazioa zabaltzea, eta euskara hutsean egiten badira. Lurraldeko informaziotzat Bizkaiko Lurralde Historikoari buruzkoa jotzen da.

a) Proiektu komunikatiboen betekizun orokorrak:

- 1) Deialdiaren denbora-eremua kontuan hartuta, aldi osoan, hau da, 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartean, laguntza honetara aurkezten den proiektu komunikatiboak kalean egon behar du, ohiko maiztasunarekin edo jardunarekin.
- 2) Euskara hutsean egiten diren informazio orokorreko edo diziplina anitzeko proiektu komunikatiboak bakarrik lagunduko dira diruz, baldin eta tokikoak, eskualdekoak edo lurraldekoak badira eta Bizkaiko Lurralde Historikoa edo bertako udalerriak zein eskualdeak hartzen badituzte erreferentziazat.
Haien edukia euskara batuan edo bizkaieraz idatzi beharko da, betiere Euskaltzaindiak ezarritako hizkuntza-irizpideei jarraituz.
- 3) Entitate eskatzaileak bere identifikazio fiskaleko zenbakiarekin garatzen dituen hedabide guztiak sartu beharko dira proiektu komunikatibo berean, nahiz eta entitateak hainbat goiburu (hedabide bakoitzaren izenak) edo euskarri (papera, digitala, etab.) izan.
- 4) Proiektu komunikatiboek ekoizpen propioa garatu beharko dute eta originalak izan beharko dute; hau da, proiektuaren erredakzio-taldeak sortu beharko du haren edukia, eta artikuluen/edukien egiletza dagokion egile espezifikoaren sinaduraren bidez jasoko da.
- 5) 2025-2028 aldia hartzen duen negozio-plan bat izan beharko dute.
- 6) Proiektu komunikatiborako proposatutako erredakzio-taldean kazetaritza-lana egingo duen pertsona batek egon beharko du (ez da beharrezkoa izango Kazetaritzako titulazio espezifikoa izatea), eta dagokion kontratu-mota aurkeztuz bermatuko da hori.
- 7) Informazioari dagokion edukiak kazetaritza-estiloan idatzita egon beharko du, gaurkotasuneko gaiei buruzkoa izan beharko du, eta argitaratze-datak zehaztuta egon beharko du.
- 8) Publizitatea ez da izango eduki osoaren %50 baino gehiago, eta euskaraz egon beharko du. Hala ere, iragarki elebidunak onartuko dira, betiere oreka mantentzen bada. Baldintza hori deialdi hau argitaratzen denetik aurrera bete beharko da.
- 9) Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorruta, proiektu komunikatiboan ez da erabiliko hizkera sexistarik ez zuzenean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen diren dokumentuetan eta euskarrietan (idatzietan, irudietan, eta abarretan).
- 10) Proiektuan agertzen diren berrien subjektua pertsona denean, edukietan pertsonen duintasuna errespetatuko da.
- 11) Jabetza intelektualaren arloko araudia bete beharko da.
- 12) Deialdi honetan eskatzen den gutxieneko finantzaketa propioa izan beharko dute (ikus 1.5 oinarria).



- b) Proiektu komunikatiboen betekizun espezifikoak eta gutxieneko ekoizpena:
- 1) Jarduera nagusia paperekoa eta digitala bada, proiektu komunikatiboek baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - Urtean lau zenbaki argitaratzea, gutxienez, eta astean bost eduki desberdin, gutxienez, euskarri digitalean. Jarraian eta etengabe argitaratu behar dira, izen berarekin, eta aleek data jarrita edukiko dute eta zenbaki-hurrenkera bati jarraituko diote.
 - Legezko gordailua eta ISSN izatea, edo, bestela, lortzeko eskabidea izapidetuta izatea, hala ezarrita dagoen kasuetan.
 - Banaketa-sistema garden eta agerikoa izatea.
 - Argitalpenean salmenta-prezioa agertzea. Prezio hori harpidetzarena bada, ale bakoitzean jaso behar da aukera hori. Betekizun hau ez da bete behar doako hedabideen kasuan.
 - Alderdi digitalean, bisitak eta bisitariak neurtzeko kontagailu bat izan beharko dute. Entitate eskatzaileak kontagailurako sarbidea emango dio Euskara Zuzendaritza Nagusiari. Edukiek argitaratze-data eduki beharko dute, idatzizkoak edo ikus-entzunezkoak izan, eta ekoizpen propiokoak. Artikuluen eta edukien egiletza sinaduraren bidez jasoko da.
 - 2) Jarduera nagusia digitala bada, honako betekizun hauek bete beharko dituzte:
 - Gutxienez bost eduki berri argitaratzea astero hedabidearen webgunean edo sare sozialetan.
 - Bisitak eta bisitariak neurtzeko kontagailu bat izatea. Entitate eskatzaileak kontagailurako sarbidea emango dio Euskara Zuzendaritza Nagusiari.
 - Edukiek argitaratze-data izatea, idatzizkoak edo ikus-entzunezkoak izatea, eta ekoizpen propiokoak. Artikuluen eta edukien egiletza sinaduraren bidez jasoko da.
 - 3) Jarduera nagusia ikus-entzunezkoa bada, honako betekizun hauek bete beharko dituzte:
 - Emititzeko behar diren lizentzia edo lizentziak izatea (eskatzailaren titulartasunekoak).
 - Zuzeneko emisioa egiteaz gain, astean gutxienez bost eduki berri sortzea Interneten.
 - Euskarazko telebista-saioak urte osoan zehar ematea.
 - Emisio-orduak zenbatzeko, ez dira kontuan hartuko aurrez emititutako programak birjartzeari dagozkion orduak, ezta musika hutsekoak ere. Era berean, ez dira kontuan hartuko besteren programa edo informazio-saioen aldi bereko zein diferitutako emanaldiei dagozkien orduak.
2. Aurreko zenbakian ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten proiektu komunikatiboek ezin izango dute dirulaguntzarik lortu foru-dekretu arautzaile honen babespean.
3. Foru-dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira deialdi hau izapidetzean indarrean dagoen Euskara Indarberritzeko eta Euskaldunok Ahalduntzeko Marko Estrategikoa (AROA) izeneko Eusko Jaurlaritzaren dokumentuan ezarritako helburuekin bat ez datozen proiektuak. Horrez gainera, kanpo geratuko dira proiektu komunikatibo hauek ere:
- a) Eusko Jaurlaritzarenak, foru-aldundienak, udalenak edo aurreko horien menpe dauden sozietate publiko, erakunde autonomo edo antzekoenak. Oro har, Euskal Administrazio Publikoa osatzen duten entitateen proiektu komunikatiboak, bai eta erakunde pribatuak Administrazioaren edo erakunde publikoen enkarguz egindakoak ere.
 - b) Alderdi politiko, hauteskunde-koalizio, sindikatu edo profesionalen elkargoenak.
 - c) Elkarre, fundazio edo antzekoenak, betiere, haien kideak edo bazkideak badira hartzaile bakarrak eta eskusiboak.



- d) Glotodidaktikako eta psikopedagogiako aldizkariak, bai eta hezkuntza-arlorako bi-deratutako edukiak dituzten proiektuak ere.
- e) Eskoletako argitalpenak, kultura-aldezkarriak, kirol-aldezkarriak, ikuskizunen gidak, denbora-pasak eta antzekoak.
- f) Proiektu tekniko edo espezializatuak, eta gai monografikoak lantzen dituztenak.
- g) Tokiko proiektuak, baldin eta ez badira informazio orokorrekoak edo diziplina anitzekoak.
- h) Tokikoak, eskualdekoak edo lurraldekoak ez diren argitalpenak; azken kasuan, Bizkaiko Lurralde Historikoaz ari dela ulertu behar da.
- i) Irratiak.
- j) Deialdi honetan dirulaguntza jaso ezin duten argitalpenen gehigarriak.
- k) Aurretik edo aldi berean paperean edo beste hedabide digital batzuetan argitaratutako edo irratiz edo telebistaz emandako jatorrizko edukiak erreproduzitzen dituzten proiektu komunikatiboak, baldin eta eduki horiek proiektuen eduki osoaren %50 baino gehiago badira.
- l) Euskara hutsezko hedabideen ekintzabidea ziurtatzeko Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2022ko apirilaren 11n sinatutako hitzarmenaren esparruan edo hura ordezkatzeko duen 2025eko urriaren 16an Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak onetsitako hitzarmena, administrazio berberen artean sinaturikoa, Bizkaiko Foru Aldundia ez den beste erakunde baten dirulaguntza jaso duten edo jaso lezaketeko proiektu komunikatiboak. Ildo horretan, ezin izango da foru-dekretu arautzaile honen dirulaguntzarik jaso baldin eta dirulaguntza hauek jaso badira: aipatutako hitzarmenaren esparruan administrazio horietako edozeinek emandakoak, edo Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat eremutan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko proiektuak diruz laguntzeko aldizka egiten dituen deialdien barruan emandakoak, edo administrazio horrek helburu bererako emandako zuzeneko dirulaguntza izendunak.
- m) Publizitateko proiektu komunikatiboak, gida komertzialak eta, oro har, batik bat publizitate-helburu edo -edukiak dituzten argitalpenak.
- n) Jatorrizkoak ez diren proiektu komunikatiboak, edo beste hedabide edo aldizkari baten aldaera edo birformulazio hutsa direnak.
- o) Honako hauek erreproduzitzen dituzten proiektu komunikatiboak: obrak, gaurkotasuna duten artikulak edo kazetaritza-estiloak ez diren idatziak, baldin eta aurretik beste hedabide batzuetan argitaratu badira eta deialdi berean badaude.
- p) Beste hizkuntza batean bertsio bera edo funtsean antzekoa den bat duten proiektu komunikatiboak.
- q) Entitate eskatzaile berak argitalpen, hedabide edo proiektu komunikatibo desberdinetarako bereiz egiten dituen eskaerak (hau da, identifikazio fiskaleko zenbaki beraren pean egindakoak). Alde horretatik, ulertzen da proiektu komunikatibo baten parte direla eskatzaileak garatutako hedabide guztiak. Hala, bada, ulertuko da, entitate batek, esaterako, bi eskaera aurkeztu baditu, atzera egiten duela lehenik egindako eskaeran, eta bigarrena izapidetuko da.
- r) Deialdi honetan eskatzen den gutxieneko finantzaketa propioa ez duten proiektu komunikatiboak (ikus 1.5 oinarria).
- s) Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruz indarrean dagoen araudia- ren arabera edozein motatako diskriminazioa eragiten duten proiektu komunikatiboak.
- t) Kultura-aldezkarriak, ikuskizunen gidak, denbora-pasak eta antzekoak.
- u) Mota guztietako argitalpen edo hedabide konfidentzialak, harpidetza bitartez edo kioskoan saldutakoak, edo formatu elektronikoan zabalduak.



- v) Digitalak baino ez diren hedabideei dagokienez:
- 1) ISP (Internet Service Provider) izenez ezagutzen direnek jarduera garatzean argitaratutako proiektu komunikatibo digitalak.
 - 2) Publizitate-atari eta -argitalpen digitalak, onlineko gida komertzialak eta, oro har, nagusiki publizitate-helburuak edo -edukiak dituzten argitalpen digital guztiak.
 - 3) Pertsona fisikoek egunkari pertsonal elektronikoen formatuan argitaratutako bitarteko digitalak, hau da, blog digitalak (blogak, openblogak, audioblogak eta beste batzuk).
 - 4) Berezik, aurretik edo aldi berean paperean edo beste hedabide digital batzuetan argitaratutako edo irratiz edo telebistaz emandako jatorrizko edukiak erreproduzitzen dituzten hedabide digitalak, baldin eta eduki horiek hedabidearen eduki osoaren %50 baino gehiago badira.
- w) Albisteen biltegi digitalak: proiektu komunikatiboaren web bertsioak, halabeharrez, dagokion eremuko tokiko, eskualdeko edo lurraldeko gaurkotasunari lotutako albisteak izan beharko ditu hasierako orrian, modu ordenatuan sailkatuak eta egituratuak ikuspuntu informatibo batetik, eta ez dira diruz lagungarritzat joko albisteen gordailu historiko hutsak. Aipatutako albisteak, foru dekretu honen aurreko xedapenekin bat etorritik, egileek sinatuta egon beharko dira, eta argitaratze-data izan beharko dute.

4. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak badira eta ezarritako epearen barruan egiten badira, baina dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Beraz, laguntza-deialdi honetan sorkuntza-, funtzionamendu-, sustapen-, inprenta- eta zabalkunde-lanei zuzenean egotzitako gastuak baino ez dira kontuan hartuko.

Eskatzailea langile fisiko autonomoa bada, diruz lagundu daitekeen gastutzat hartu ahal izango da, langile-gastutzat, Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Bereziaren (LAAB) pean ordaindutako kuota, gehi kuota hori ordaintzeko aukeratutako oinarria, eskabidea aurkeztu duen langileak proiektu komunikatiboari ematen dion zerbitzuaren zati proportzionalen.

Diruz laguntzeko modukotzat joko dira, halaber, langile fisiko autonomoen edo entitateen gastuak, hornitzaileengandik jasotakoak, betiere azken horiek zerga- eta lan-arloan aplikagarria den araudia eta foru-dekretu arautzaile honetan jasotako gainerako baldintzak betetzen badituzte.

Gainera, enpresa onuradunak merkataritza-eragiketetan egindako gastu diruz lagunduak nahitaez berankortasunari buruzko araudian aurreikusitako ordainketa-epeetan ordaindu beharko dira.

Honako hauek ez dira diruz laguntzeko gastutzat joko:

- a) Ekipo-ondasunak erostearen ondoriozkoak, salbu eta foru-dekretu honetan jasotzen diren jarduerak egiteko epean ondasun horiek direla-eta amortizatu behar den zatia, aplikatzekoa den kontabilitate-araudiaren arabera.
- b) Banku-kontuetako interes zordunak.
- c) Interesak, errekarquak eta zehapen administratibo eta penalak.
- d) Prozedura judizialen gastuak.
- e) Paperekoak eta digitalak diren argitalpenen zati digitalari dagokionez, eta proiektu komunikatibo digitaletan, aldaketa edo hobekuntza teknologikoak, hau da, aplikazio edo garapen berriak egitea edo lehendik daudenak egokitzea.
- f) Zeharkako tributuoak (besteak beste, BEZa) ez dira diruz laguntzeko gastutzat joko baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke. Kasu horretan, BEZik gabe agertu behar dira gastuen zenbatekoak, hala eskabidean dagoen aurrekontuan, nola dirulaguntzaren justifikazioarekin batera aurkeztuko den gauzatu-



tako aurrekontuan. BEZa berreskuratu ezin duten entitate onuradunen kasuan, gastutzat hartuko da tributu hori; aipatutako erakundeek egiaztatu egin beharko dute egoera hori Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren ziurtagiri baten bidez. Era berean, ez dira diruz laguntzeko gastutzat joko errentaren gaineko zerga pertsonalak.

- g) Eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuan artikuluko honen arabera diruz laguntzekoak ez diren gastuak badaude, neurritz kanpokoak direlako edo proiektu komunikatiboarekin zuzenean lotuta ez daudelako, organo kudeatzaileak ezabatu edo araztu egingo ditu, hartara, dirulaguntza kalkulatzeko oinarri izango den diruz laguntzeko moduko gastuen aurrekontua zehazteko.
- h) Oro har, maiatzaren 5/2005 Foru Arauaren 29. artikuluekin bat etorrira, beren-beregi kanpo utzitakoak.
- i) Enpresen kasuan, enpresa onuradunak merkataritza-eragiketetan egin dituen diruz laguntzeko moduko gastuek berankortasunari buruz aplikatzekoa den araudian aurreikusitako ordainketa-epeetan ordainduta egon beharko dute.

5. Foru-dekretu honen helburua da eskatzaileen ekintzak babestu eta osatzea. Inola ere ez da helburua jarduera egiteagatik sortutako gastu guztiak finantzatzeara. Hori dela eta, jarraian zehazten diren finantzaketa-mugak bete beharko dira. Onuradunak bere gain hartu beharko du argitalpenaren finantzaketaren %20, gutxienez, dirulaguntza-eskaera aurkezteko epea amaitzen denean lehen zenbakia argitaratu zutenetik jarduera profesionalean urtebete edo gehiago egin duten argitalpenen kasuan, eta ehuneko bera jardun profesionalean urtebete baino gutxiago eman duten argitalpenen kasuan. Finantzaketa propioaren maila horretara iristen ez diren argitalpenek ezin izango dute deialdi honetan parte hartu, eta, ondorioz, kanpoan geratuko dira.

Finantzaketa propioaren ehuneko hori entitate edo pertsona eskatzaileak eskaeran aurkeztutako aurrekontuaren gainean kalkulatu da, eragiketa honen bidez: dirulaguntza publiko ez diren sarrera guztiak (entitatearen beraren ekarpenak, salmentak, publizitatea, babesleak, entitate pribatuak egindako sarrerak, etab.) zati diru-sarrera guztiak. Finantzaketa propioaren gutxiengo ehuneko dirulaguntzaren justifikazioan ere bermatu beharko da.

2. oinarria. — *Pertsona eta entitate onuradunak*

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan proiektu komunikatiboak garatzen dituzten Bizkaiko merkataritza-sozietateak, kooperatiba-sozietateak, banakako enpresaburuak, profesionalak eta irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuak izan daitezke foru-dekretu honetan araututako dirulaguntzen onuradun, baldin eta ez badaude onuradun ez izateko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako egoeretako batean ere eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Egoitza soziala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.
- b) Dagokion erregistroan inskribatuta egotea (pertsona fisikoek kasuan izan ezik). Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira betekizun horiek guztiak. Halaber, prozeduran zehar ere bete behar dira, dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu arte.
- c) Proiektu komunikatiboa aurkeztean duen entitateak, edozein dela ere bere izaera juridikoa, berariaz agerrarazi beharko du bere estatutuetan, eratze-agirietan edo beste dokumentu ofizial batean bere eginkizunak direla euskarazko edukiak sortzea eta zabaltzea edo euskararen normalizazioaren alde egitea, edo euskarazko hedabidea dela. Pertsona fisikoek dagokion aitorpenaren bidez agerrarazi beharko dute hori.

2. Horrez gainera, pertsona fisiko eta juridikoek ezin izango dute dirulaguntzak emateko prozesu honetan parte hartu eta onuradun izan baldin eta:

- a) Sexuarengatik edonolako diskriminaziorik sortzeagatik edo berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik zehapen administratibo, laboral edo penalen bat jaso badute, zehapenean ezarritako epean zehar.



- b) Beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduketa, antolaketa edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira.
- c) LGTBI pertsonak eta beste kolektibo batzuetako pertsonak diskriminatzeagatik edo tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik zehapen administratibo edo penalen bat jaso badute, zehapenean ezarritako epean zehar.
- d) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudian ezarritako baldintzetan, berdintasun-planak eta sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta halakoei aurre egiteko neurriak jasotzen dituzten protokoloak eta/edo dokumentuak izateko betebeharra bete ez badute.
- 3. Azkenik, foru-dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo daude honako hauek:
 - a) Ondarean administrazio publiko baten edo gehiagoren partaidetza duten entitateak.
 - b) Kapitala gehienbat publikoa duten entitateak eta ondare fundazionala edo gobernu- edo zuzendaritza-organoetako partaidetza gehienbat publikoa dutenak.
 - c) Unibertsitate publikoak.
 - d) Eusko Jaurlaritzaren eta hiru euskal foru-aldundien artean 2025-2028 aldirako sinatutako esparru-hitzarmenaren arloan diruz lagun daitezkeen proiektu komunikatiboen entitate titularrak (ikus 1.3.1 oinarria).
 - e) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako, eta soilik irabazi-asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoen kasuan, ezin izango dira onuradun izan berankortasunaren arloan aplikatzekoa zaien araudia betetzen ez dutenak.

Hala, 30.000 eurotik gorako dirulaguntzaren bat jasotzen duten pertsona fisiko edo juridiko horiek galdu-irabazien kontu laburtua aurkez dezaketen ala ez, era desberdinetara egiaztatu beharko dute araudia betetzen dutela: galdu-irabazien kontu laburtua aurkez badezakete, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez; ezin badute, auditoreak emandako ziurtagiriaren bidez edo «Adostutako Prozeduren Txostena»ren bidez (guztiak ere, aipatutako 5/2005 Foru Arauaren 12.3.bis artikuluan ezarritako eskakizunak).

II. TITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOA

3. oinarria. — *Aplikatu beharreko araudia*

Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek aplikatuko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua; martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamendua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; 4/2010 Errege Dekretua, urtarilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena; 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duena, eta beste edozein xedapen arauemaile, duen izaeragatik aplikatu beharrekoa baldin bada.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua entitate pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroren edo gehiagoren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituztenei edo urteko diru-sarreraren %40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik datozkienei, baldin eta sarrerok, gutxienez, 5.000 eurora heltzen badira.

4. oinarria. — *Arau-hausteak eta zehapenak*

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluaren xedatutakoa ezarriko da, baita arau hori garatzen duen erregelamendua-ren IV. titulua ere.



III. TITULUA

PROZEDURA

5. oinarria.— Eskabideak aurkezteko lekua eta epea

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Egoitza elektronikoko izapideen katalogoan dago foru-dekretu honen laburpen-fitxa.

2. Eskabideak aurkezteko epea 2026ko urtarrilaren 12an hasiko da eta 2026ko otsailaren 9ko 13:30ean amaituko da.

6. oinarria.— Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta baldintzak

1. Eskabideak aurkezteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan bete eta aurkezteko dauden eredu ofizialak erabili behar dira, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

2. Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Estatutuak edo, hala badagokio, entitatea eratu izana egiaztatzen duten agiriak, non egoitza soziala agertuko baita. Agiri horietan egiaztatuko da, 2.1.c) oinarriarekin bat etorruta, bere eginkizunak direla euskarazko edukiak sortzea eta zabaltzea edo euskararen normalizazioaren alde egitea, edo euskarazko hedabidea dela. Pertsona fisikoek dagokion aitortpenaren bidez agerrarazi beharko dute hori.
- b) Dagokion erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria.
Aurreko apartatuetan aipatutako dokumentazioa ez da aurkeztu beharko baldin eta aurretiaz aurkeztu bada eta ez bada aldaketarik egon azken hiru urteetan.
- c) Erredakzio-taldean kazetaritza-lana egingo duen pertsonaren kontratua, lan horiek egingo dituela egiaztatzeko, 1.1.a.6) oinarriarekin bat etorruta.
- d) 2025-2028 aldirako negozio-plana.
- e) Diruz laguntzeko proiektua azaltzeko memoria, egoitza elektronikoan jarriko den ereduaren arabera idatzita. Bertan, epaimahai kalifikatzaileak dagokion puntuazioa kalkulatzeko ebaluatu beharko dituen irizpideak jasoko dira.
- f) Aurreko agiriez gain, honako hauek ere aurkeztu beharko dira, beren beregi:
 - 1) Proiektu komunikatiboek jarduera nagusia paperean eta digitalki egiten badeute:
 - Proiektu komunikatiboa osatzen duen goiburuaren bertsio digitalean argitaratutako edukien (albiste idatzien eta ikus-entzunezkoen) zerrenda (eduki bakoitzaren argitalpen-data eta guzti), 2026 ekitaldiari dagokiona, diruz laguntzeko proiektu izateko ezaugarriak betetzen dituen egiaztatze-ko; proiektua goiburu batek baino gehiagok osatuz gero, edukiak goiburu-ka banatuta agertu beharko dira zerrendan.
 - Bisitak eta bisitariak neurtzeko kontagailurako sarbidea.
 - Domeinua erregistratu izanaren ziurtagiria. Domeinuak eskatzaileak bere izenean erregistratuta egon behar du.
 - Hedabideen auditoria-ziurtagiria (OJD, PGD, OJDinteractiva) —non egiaztatzen den inprimaturiko eta banaturiko aleen kopurua— eta inprimatze- eta banaketa-gastuen egiaztagiria (fakturak eta ordainketa-frogagiriak), betiere 2025eko ekitaldiari dagozkionak. Agiri horiek aurkeztuko dira baldin eta ekitaldi horretako dirulaguntzen justifikazioan aurkeztu ez badira. Halako ziurtagiririk izan ezean, inprimaturiko eta banaturiko aleen kopurua ere zehaztu beharko da egiaztagiriotan.



- Eskatzaileak —egoitza elektronikoaren bidez egindako eskaerari aipamen espresua eginda— postaz bidali beharko dizkio Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara Zerbitzuko Hizkuntza Gizarteratzeko Atalari (Recalde zemarkalea 30, 5. solairua, 48009 Bilbo), eskabidea egin den egunera arte 2026ko ekitaldian argitaratutako ale guztiak, baldin eta aleok ez badizkio bidali 2026an zehar. Aleak postaz bidaliko zaizkio Euskara Zerbitzuko Hizkuntza Gizarteratzeko Atalari hedabideak aleak argitaratzen dituen maiztasun berean.
- 2) Proiektu komunikatiboaren jarduera nagusia digitala bada:
 - Proiektu komunikatiboa osatzen duen goiburuaren bertsio digitalean argitaratutako edukien (albiste idatzien eta ikus-entzunezkoen) zerrenda (eduki bakoitzaren argitalpen-data eta guzti), 2026 ekitaldiari dagokiona, diruz laguntzeko proiektu izateko ezaugarriak betetzen dituen egiaztatze-ko; proiektua goiburu batek baino gehiagok osatuz gero, edukiak goiburu-ka banatuta agertu beharko dira zerrendan.
 - Bisitak eta bisitariak neurtzeko kontagailurako sarbidea.
 - Domeinua erregistratu izanaren ziurtagiria. Domeinuak eskatzaileak bere izenean erregistratuta egon behar du.
- 3) Proiektu komunikatiboaren jarduera nagusia ikus-entzunezkoa bada:
 - Telebista-zerbitzua emateko lizentzia.
 - Asteko zuzeneko programazioa (norberarena edo eresia den bereizita).
 - 2026ko urtarrilaren 1etik eskabidea egin den egunera arte Interneten argitaratutako edukien zerrenda, dataren arabera sailkatuta.
- g) Interesdunak legezko edo borondatezko ordezkari baten bitartez jardunez gero, ordezkari-tza egiaztatu beharko da, zuzenbidean onartutako edozein frogabide erabilita.
- h) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako, eta soilik irabazi-asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoen kasuan, betiere galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin badute, auditoreak emandako ziurtagiria, edo «Adostutako Prozeduren Txostena».
- 3. Erakundean legezko gaitasuna duen pertsonak sinatu behar du eskabidea. Eskatzaileak, egoitza eskuragarri dagoen ereduari jarraituz, honako hauek adierazi beharko ditu:
 - a) Ea argitalpenaren aleak bidali dizkion Euskara Zerbitzuko Hizkuntza Gizarteratzeko Atalari edo Bizkaiko Foru Aldundiaren beste atal edo zerbitzu bati bidali dizkion (azken kasu horretan, adierazi behar da zeini).
 - b) Publizitatearen ehunekoa, eduki osoarekin alderatuta.
 - c) Proiektuari eskainiko zaion dedikazioa, aurrez ikusitakoa: proiektua aurrera eramaten ziur aski parte hartuko duten pertsonen kopurua eta bakoitzak izango duen ordu-dedikazioa, estimazioetan oinarritutakoa.
 - d) Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 2. artikulua aintzat harturik, ea zein diren erakundeak urtean aurreikusten dituen diru-sarrera guztiak.

Halaber, adierazi beharko du, hala badagokio, ea betetzen dituen aplikagarri zaizkion publizitate aktiboari buruzko betebeharrak.
 - e) Ea behartuta dagoen BEZaren aitortpena egitera
 - f) Ea garatu nahi duen proiektuaren jabetza intelektualari lotutako elementuen us-tiapen-eskubideen titularra den.
 - g) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako, eta soilik irabazi-asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoen kasuan, betiere galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu ahal badute, berankortasunaren arloan aplikatzekoa zaien araudiari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

**7. oinarria. — Dokumentazio egiaztagarria**

Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilita, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Euskara Zerbitzuak beharrezko datuen egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu, dekretu honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, interesdunak modu espresuan kontra dagoela adierazten ez badu. Kontra egonez gero, arrazoiak adierazteaz gainera, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Datu horiek honako hauek dira:

- a) Banku-kontuaren titulartasunari buruzko datuak.
Eskatzaileak uko egiten badio administrazio honek bere bitartekoak erabiliz bankuko datuak egiaztatzeari, banku-helbideratzearen fitxa aurkeztu beharko du, behar bezala beteta.
- b) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- c) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Euskara Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Datu horiek eskuratzeko modua bat etorriko da datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin, bai eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin.

8. oinarria. — Eskabideak zuzentzea edo hobetzea

Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru-dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, errekerimendua egingo zaio interesdunari, hamar (10) eguneko epearen barruan akatsa zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

2. Edonola ere, Euskara Zerbitzuak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du, aurkezten zaizkion eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko.

9. oinarria. — Dirulaguntzak emateko araubidea

Dirulaguntzak norgehiagoka-sistemaren bidez emango dira, hau da, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da eta aurkeztutako eskabideak erkatuko ditu, haien artean lehentasun-hurrenkera bat ezartzeko, 10. oinarrian dirulaguntzak emateko ezarritako irizpideak kontuan hartuta.

Proposatuko da dirulaguntzak ematea 30 puntu edo gehiago lortu dituzten proiektuei. Puntu horiei gutxieneko dirulaguntza-ehunekoa dagokie, eta ehuneko hori linealki handituko da lortutako puntu gehigarri bakoitzeko. Nolanahi ere, dirulaguntzaren muga izango da dagokion aurrekontu-partidan kontsignatutako zenbatekoa, eta proiektu komunikatibo bakoitzerako eskatutako zenbatekoa.

Aurkeztutako proiektuei a priori eman beharreko dirulaguntzek erabilgarri dagoen partida gainditzen badute, orduan, dirulaguntzaren zenbatekoa (eta, horrenbestez, azkenean lortutako dirulaguntzaren ehunekoa) proportzionalki murriztuko da partida horretara egokitu arte. Aitzitik, aurkeztutako proiektuei a priori eman beharreko dirulaguntzen zenbatekoa txikiagoa bada partida erabilgarria baino, orduan, dirulaguntzen zenbatekoa proportzionalki gehitu ahal izango da partida horretara egokitu arte, mugatzat hartuta proiekturako eskatutako zenbatekoa eta deialdian eskatzen den gutxieneko autofinantzaketa-maila.

**10. oinarria. — Dirulaguntzak emateko irizpideak**

Proiektu komunikatibo bakoitzari gehienez eman dakioken puntuazioa kalkulatzeko, dirulaguntzak emateko irizpide hauek aplikatuko dira, zeinak Jaurilaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2025eko uztailaren 1eko Aginduaren bidez (2025eko uztailaren 7ko EHAA, 127. zk.) Eusko Jaurilaritzak argitaratutako Hedabideak deialdiaren arabera idatzita baitaude:

1. Irizpide deskriptiboa (15 puntu):
 - a) Proiektu komunikatiboaren deskribapena, edizioaren diseinua eta kalitatea baloratuko da modu orokorrean. Euskarri guztietan egingo da balorazioa. Edukiak euskarri ezberdinetan zabaltzeko egokitasuna eta ikus-entzunezko edukiak (audioa + testua + argazkia) maiztasun batekin sortzen dituen.
 - b) Lantaldea, organigrama: Lantaldea osatzen duten langileak eta haietako bakoitzaren zereginak eta dedikazioak zehaztuko dira. Argitalpenak lehenengo orrietan jasoko du zein den lantalde osoa. Eduki bakoitza (idatzizkoa, edo ikus-entzunezkoa) kazetariaren izen-abizenarekin identifikatuko da. Beste hedabide baten edukia bada, hedabide horren izenarekin identifikatu behar da.
2. Egitasmoaren kalitatea (60 puntu):
 - a) Audientzia: proiektuak zer audientziari begira lan egiten duen azalduko du bai eta audientzia aztertzeke erabiltzen duen sistema ere. Audientzia berrietara iristeko plana du eta produktuak audientziekin nola lotzen dituen azalduko du. Planaren balorazioa. Audientzia eta edukiaren arteko lotura baloratuko da.
 - b) Trafiko-datuaren azterketa: datuak aztertzeke zer panel sistema erabiltzen duen azalduko du. Datuen etengabeko analisia egiten duen baloratuko da.
 - c) Presentzia digitala: proiektu komunikatiboaren jardun digitala baloratuko da eta edukiak digitalki hedatzeko duen estrategia. Komunikabideak bide digitala lehenesteko zer estrategia duen eta lan-fluxua horretara egokitzeko egiten duen lana baloratuko da.
 - d) Kultura eta euskara: proiektu komunikatiboak euskal kulturarekin edo euskararekin duen konpromisoa baloratuko da.
 - e) Zabalkundea: proiektu komunikatiboak sortzen dituen edukiak hedatuak izan daitezen duen estrategia baloratuko da.
 - f) Informazioaren egiazkotasuna: hedatzen dituen informazioak benetakoak direla bermatzeko erabiltzen duen estrategia baloratuko da. Egiazko albisteak edo testuingurutik ateratakoak diren jakiteko eta edukia kontrastatzeko prozedura daukan baloratuko da.
 - g) Inpaktu soziala: proiektu komunikatiboak bere jardunak duen inpaktu soziala nolakoa den azalduko du eta neurtzeko zer sistema erabiltzen duen ere azalduko du. (hedabideak aukeratuko du edukia eta horren gainean azterketa aurkeztuko du). Neurketa-sistema baloratuko da.
 - h) Kode etikoa: proiektu komunikatiboak erabiltzen duen bere kode deontologikoa eta horri ematen dion erabilera baloratuko da.
 - i) Marka-kudeaketa: proiektuaren marka-kudeaketarako estrategia baloratuko da.
 - j) Segmentazioa: xede-talde jakin edo berezi bati zuzendutako eduki edo produktu berezituak ditu, eta horrek hobeki segmentatzea ahalbidetzen dio. Ekoizpen eksklusiboak ditu harpidedunei begirakoak (adibidez: datu-horma/muro de datos). Horren gaineko estrategia baloratuko da.
 - k) Berrikuntza: proiektu komunikatiboak berrikuntza bitartezko etengabeko egokitzapena, era planifikatuan azken produktuari begira egiten duen baloratuko da. Batzuetan bakarka garatuko ditu berrikuntza-proiektuak eta beste



batzuetan, ordea, enpresa espezializatuekin edo komunikabideekin batera. Proiektu horien azalpena baloratuko da.

- l) Publiko potentziala: proiektu komunikatiboak publiko potentzial txikia du (definitu). Definizioa baloratuko da.
 - m) Berdintasuna: egitasmo osoan eta edukiak sortzeko garaian genero ikuspegia txertatzeko plana baloratuko da.
 - n) Teknologia berriak: teknologia berrien aplikazioa lan-fluxuaren atalen baitan: itzultzaile automatikoa, harpidetzen kudeaketarako sistemak, maketa-zio-sistema aurreratuak, kudeaketa aurreratuak... Teknologia berrien aplikazioa baloratuko da.
 - o) Membresia: proiektu komunikatiboak membresia lantzeko aktibitate-plana baloratuko da.
 - p) Ingurumena: proiektu osoan eta edukiak sortzeko garaian ingurumen-ikuspegia txertatzen duen baloratuko da.
3. Ezaugarri ekonomikoak (25 puntu):
- a) Aurrekontu koherentea izatea baloratuko da: aurrekontuaren eta aktibitate-planean jasotako proposamenaren arteko koherentzia ekonomikoa egon behar da. Aktibitate-planak organigrama bat du: kudeaketa orokorra, kazetaritza, diseinu eta zuzenketa, ikus-entzunezko teknikariak, eta baliabide materialak.
 - b) Aurrekontu orekatua izatea baloratuko da: diru-sarrerara propioak (autofinantzaketa kopuru absolutuak).
 - c) Marketing-plana baloratuko da. Helburu zehatzak eta horiek lortzeko planifikazioa hedabidearen zabalkundeari begira.
4. Proiektu bakoitzari dagozkion puntuak artikulu honetan zehaztutako balorzio-irizpideen eta haietako bakoitzaren zehaztapenaren arabera finkatuko dira. Puntu horiek onartutako gastu-aurrekontuaren estalpen-indizea zehaztuko dute.
5. Proiektu komunikatibo bakoitzari (pertsona edo entitate bat, proiektu bat) emandako dirulaguntzaren ehunekoa lortutako puntuazioaren arabera izango da. Foru-dekretu honen babespean, dirulaguntza lortu ahal izateko gutxieneko puntuazioa 30 puntu da, eta gutxieneko dirulaguntza, 2.000 euro. Puntuazioak edo dirulaguntza teorikoak txikiagoak izanez gero, proiektua baztertu egingo da dirulaguntzaren ondorioetarako, eta legokiokkeen zenbatekoa gainerakoen onurarako izan liteke.

30 puntu horiei esleituko zaien dirulaguntzaren ehunekoa proiektuaren aurrekontu araztuaren %35 izango da. %35eko ehuneko hori linealki igoko da (+ %0,2) proiektuak lortutako puntu gehigarri bakoitzeko, gehienez ere 100 punturaino (lehen zehaztutako irizpideen arabera). Irizpide horren arabera, puntuazio horri gehienez egokituko litzaiokeen dirulaguntzaren ehunekoa %49 da.

Dirulaguntzaren zenbatekoa, aipatutako ehunekoak aplikatuta lortutakoa, %5 handitu ahal izango da bizkaiera hutsean garatzen diren proiektu komunikatiboetan.

Dirulaguntzaren ehuneko eta zenbateko horien mugak hauek dira: proiektu komunikatiborako eskatutako zenbatekoa, aurrekontu-partidan kontsignatutako zenbatekoa eta deialdian eskatzen den autofinantzaketa-maila. Aurreko puntuetan esandako moduan kalkulatu diren dirulaguntzen baturak diru-baliabideen muga gainditzen badu, kasuan kasu esleitu beharreko dirulaguntzen ehunekoak proportzionalki murriztuko dira erabilgarri dagoen partidara egokitzeko. Era berean, batura hori txikiagoa bada muga baino, dirulaguntza handitu egin liteke, aipatutako partidara erabat egokitu arte.

11. oinarria. — Aholkularitza

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskara Zerbitzuak behar den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko ditu foru-dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kon-



tsulta guztiak argitzeko; horretarako, aldundiaren webguneko inprimaki hau erabili ahal izango da:

www.bizkaia.eus/laguntzaileEuskara

12. oinarria. — Epaimahai kalifikatzailea

1. Epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko. Epaimahaikideak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuak izendatuko ditu, foru-agindu bidez. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoa beteko da.

Epaimahai hori osatzen duten pertsonek behar besteko gaitasun teknikoa, administratiboa, funtzionala eta zuzendaritzakoa izango dute eskabideetan eskatzen diren betekizunak behar bezala baloratzeko eta deialdi honen xede diren proiektuak baloratzeko.

Epaimahai kalifikatzaileak egokitzen jotzen duenean, aholkularien laguntza eskatu ahal izango du, baita proiektuaren edo jardueraren gai zehatz eta espezifikoen edo zeharkako gaietan (adibidez, genero-ikuspegian) adituak diren pertsonena ere.

13. oinarria. — Ebazpena

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4. artikuluan xedatutakoa bezela, deialdi honetan, ez da aurreikusten lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena egin, eta, gero, interesdunei entzunaldiaren izapidea eskainiko zaienik, prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jasoko eta kontuan hartuko.

2. Deialdia ebatzi aurretik, Euskara Zerbitzuak egiaztatuko du ea eskatzaileek egunean dituzten tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun dirulaguntza itzuli behar dutela-eta.

Egiaztapena egin ondoren ikusten bada eskatzailearen batek betebeharrak horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean bere egoera erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, dagokion ebazpena eman ondoren.

3. Eskabideei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko epea sei (6) hilabetekoa izango da gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuak emango du ebazpena, epaimahai kalifikatzailearen proposamena kontuan hartuta.

Epe hori eskabideari buruzko ebazpen espresurik eman eta jakinarazi gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsitza joko da; hala ere, geroago ebazpen espresua eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru-agindua pertsona eta entitate interesdunei jakinaraziko zaie; horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Egoitza elektronikoan agertzearen bitartez ere komunikatuko da.

Foru-agindu horretan berariaz jasoko da ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela eta interesdunak aukerako berraztertze errekurtsoa jar dezakeela foru-agindu horren aurka, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuaren aurrean, hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi (2) hilabeteko epearen barruan; epeok jakinarazpena egin eta biharamunean hasiko dira zenbatzen.

14. oinarria. — Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin

1. Foru-dekretu honen babesean emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituzten diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.



Ez dira bateragarri izango, ordea, ez Bizkaiko Foru Aldundiak berak emandako laguntza, diru-sarrera eta baliabideekin, ez euskara hutsezko hedabideen ekintzabidea ziurtatzeko 2022ko apirilaren 11ko hitzarmena sinatu duten gainerako administrazioek —Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak— emandako dirulaguntzekin, ezta hura ordezkatzeko duen 2025eko urriaren 16ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bitartez onetsitako hitzarmena sinatzen duten gainerako administrazioek emandakoekin.

Dirulaguntza bateragarria da beste edozein erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako eman ditzakeen beste batzuekin, baldin eta gainfinantzaketarik gertatzen ez bada, foru-dekretu honetan zehaztutako mugak kontuan hartuta.

2. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretakoren bat aldatzen bada, eta betiere aldi berean udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortzen bada, gerta liteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren foru-dekretu honen bitartez araututako dirulaguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin bat eginda (eskatzen den finantzaketa propioa barne), inolaz ere ezin baita izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

3. Europako Batzordeak aztertu du foru-dekretu honen bidez diruz laguntzen den arloa, eta, 2016ko abuztuaren 4ko C (2016) 4971 Azken Erabakiaren bidez ebatzi zuen dirulaguntza hauek ez direla estatu-laguntzak; izan ere, ez dute eraginik Europar Batasunaren barruko merkatuan, toki-merkatu baterako baitira. Beraz, laguntza hauek salbuetsita daude Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 108.3 artikuluan jasotako jakinarazpen-prozeduratik.

IV. TITULUA

DIRULAGUNTZEN KUDEAKETA ETA JUSTIFIKAZIOA

15. oinarria.— *Dirulaguntzaren ordainketa*

1. Deialdi hau ebazten duen foru-agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamar egun baliodunera onuradunak ez badio berariaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten, ulertuko da onuradunak onartu egin duela, eta Euskara Zerbitzua dirulaguntzaren zenbatekoaren ordainketa izapidetzen hasiko da Ogasun eta Finantzen Foru Sailean; horretarako, onuradunei ez zaie inolako bermerik eskatuko.

Hala ere, onuradunen batek edo batzuek uko egiten badiote emandako dirulaguntzari, uko horrek ez du inola ere ekarriko deialdi honen ebazpenean ezarritakoa aldatzea.

2. Dirulaguntza ordaindu aurretik, egiaztatuko da ea eskatzaileek egunean dituzten tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak. Halaber, egiaztatuko da ez direla zordun dirulaguntza itzuli behar dutela-eta.

Egiaztapena egin ondoren ikusten bada onuradunetako batek betebeharrak horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko duela.

16. oinarria.— *Onuradunaren ekimenez egindako itzulketa*

1. Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan ezarritakoaren arabera (dekretu horren bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena), onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako dirulaguntza, foru-erakundearen inolako errekerimendurik gabe.

Halakoetan, aipatutako 76. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntza benetan itzultzen den arte sortutako berandutze-interesak kalkulatu dituen 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan araberak.



2. Foru-dirulaguntza onuradunak berak eskatuta itzultzeko, ordainketa-gutun bat erabili behar da. Ordainketa-gutun hori Euskara Zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutunean honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia, itzuli behar den dirulaguntzari erreferentzia egin da.

3. Foru-dirulaguntzaren onuradunak finantza-erakunde batean dirulaguntzaren ordainketa egin ondoren, diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskara Zerbitzuari. Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztu beharko da agiri hori.

17. oinarria. — Justifikazioa egiteko epea eta era

Foru-dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen erakunde onuradunek honako konpromiso hauek bete beharko dituzte:

1. Jarduera osoa 2026ko ekitaldian egin behar dute.
2. Dirulaguntza jasotako dirulaguntzaren zenbatekoaren arabera justifikatuko da. Horrela, zenbatekoa 100.000 euro edo gutxiago bada, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamenduaren 57. artikularekin bat etorruta, onuradunek Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailean justifikatu behar dute proiektua egin dela, hura emateko oinarrizkoak izan ziren baldintzak bete direla eta diruz lagundutako proiektuaren zenbateko araztuaren gastua jarduerari aplikatu zaiola. Horretarako, zenbait agiri aurkeztu beharko dituzte, egoitza elektronikoaren bidez, eta 2027ko otsailaren 26a izango da horretarako azken eguna (hori barne). Hona agiriok:

- a) Diruz lagundutako proiektu komunikatiboaren nondik norakoei buruzko memoria, bertan honako hauek zehaztuta: jarduerak zenbateraino burutu diren, baita diruz lagundutako proiekturako zer giza baliabide eta baliabide material erabili diren ere.

Halaber, memoria horretan jaso beharko dute genero-ikuspegitik garrantzizkoa den informazioa, garatutako proiektuari dagokiona.

- b) Egindako proiektu komunikatiboaren kostua justifikatzen duen txosten ekonomikoa, honako hauek jasoko dituen:

- 1) Proiektuari egotzitako diru-sarreraren eta gastuen egoera-orria, egoitzan dagoen ereduaren arabera.
- 2) Gastu-partida bakoitzean, dirulaguntza jaso duen proiektu komunikatiboaren gastuen zerrenda sailkatua, egoitzan dagoen ereduaren arabera.
- 3) Gastuen jatorrizko frogagiriak. Frogagiriok aurrekontu araztuaren kontzeptuei buruzkoak izango dira. Aurreko horiekin batera frogagiri eta faktura guztien zerrenda ordenatua ere aurkeztu beharko da, zenbatekoa eta aurrekontuaren zein atali dagokien zehaztuta. Gastuen jatorrizko frogagiriak kontzeptuen arabera zenbatu eta sailkatu beharko dira, egoitzan txertatutako zerrendari jarraituz.

Enpresen kasuan, berankortasunari buruz aplikatzekoa den araudian aurreikusitako epeetan egindako ordainketen fakturak eta dokumentuak soilik aurkeztu ahal izango dira.

- 4) Dirulaguntzen, laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen zerrenda zehatza, eta, hala badagokio, finantzaketa propioarena ere bai, baldin eta halakoen bidez finantzatu bada diruz lagundutako proiektua; xehetasun hori egoitzan dagoen ereduaren arabera egingo da, partida bakoitzari dagokionez.
- 5) Dena dela, diruz laguntzen den gastuak sektore publikoko kontratuen arloko araudi propioan kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, pertsona onuradunak, gutxienez, hiru hornitzaileren eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna



entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.

Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira, eta, haien artean aukeratzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak hartuko dira kontuan. Hala, proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, beren-beregi justifikatu beharko da inguruabar hori memoria baten bidez.

- c) Proiektua gauzatzeko prestatutako esku-egitarauak, kartelak, argazkiak, argitalpenak, ikus-entzunezko zein informatikako materiala eta bestelako dokumentazio grafikoa; haietan, erraz ikusteko eran agertu behar da jarduera horretarako dirulaguntza eman duela Bizkaiko Foru Aldundiak. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-elementuak sartuko dira material horietan, foru-dekretu honen 18. oinarriaren e) letran ezarritakoarekin bat etorruta. Laguntza eman dela jakinarazi ondoren egindako jardueri bakarrik dagokie betebeharrak.
- d) Proiektu komunikatiboa zer motatakoa den:
 - 1) Jarduera nagusia paperean eta digitalki egiten badute:
 - Onuradunak paperean bidali beharko dizkio Euskara Zerbituari 2026. urtean banatutako zenbaki eta gehigarri guztiak, salbu eta eskabidearekin batera bidali dituenak, 6.2.f)1 oinarrian zehaztutako moduan.
 - Zehazki, eta 17.2.b) 2) oinarriaren arabera egin ez badu, onuradunak zehaztu egin beharko ditu inprimatze- eta banaketa-gastuak — zenbatekoak, eta inprimaturiko eta banaturiko ale kopurua —; hala, gastu horiek ekarriko dute kontzeptu horiengatik faktura edo gastu-egiaztagiri bakoitzean jasotako zenbatekoa.
 - Jarduera nagusia paperean egiten duen proiektuaren zati digitalari dagokionez, onuradunak 2026an Interneten argitaratutako edukien (albisteak eta ikus-entzunezkoak) zerrenda bat erantsi beharko du, argitalpen-daten arabera ordenatuta.
 - Halaber, kontratatu dituen langileen eta laguntzaileen zerrenda erantsi beharko du (langileen kategoria, kontratu-harremanaren hasiera- eta amaiera-data eta arduraldia zehaztuta).
 - 2) Jarduera nagusia digitala bada:
 - Onuradunak 2026an Interneten argitaratutako edukien (albisteak eta ikus-entzunezkoak) zerrenda bat erantsi beharko du, argitalpen-daten arabera ordenatuta.
 - Halaber, kontratatu dituen langileen eta laguntzaileen zerrenda erantsi beharko du (langileen kategoria, kontratu-harremanaren hasiera- eta amaiera-data eta arduraldia zehaztuta).
 - 3) Jarduera nagusia ikus-entzunezkoa bada:
 - Onuradunak bere programazioaren lagin zehatz bat erantsi beharko du.
 - Onuradunak 2026an Interneten argitaratutako edukien (albisteak eta ikus-entzunezkoak) zerrenda bat erantsi beharko du, argitalpen-daten arabera ordenatuta.
 - Halaber, kontratatu dituen langileen eta laguntzaileen zerrenda erantsi beharko du (langileen kategoria, kontratu-harremanaren hasiera- eta amaiera-data eta arduraldia zehaztuta).
3. Jasotako dirulaguntza 100.000 eurotik gorakoa balitz, eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan (Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen du foru-arau horrek) eta Bizkaiko Foru Aldundia-



ren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamenduko 59. artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunak justifikazioko kontua eta Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako kontu-auditore batek egindako txostena aurkeztuta egingo du proiektuaren justifikazioa. 2027ko otsailaren 26ra arteko epea (hori barne) izango du horiek aurkezteko. Justifikazioko kontua Ogasun eta Finantza Saileko foru-diputatuaren apirilaren 15eko 945/2011 Foru Aginduaren eranskineko 3. eta 7. artikuluetan ezarritako irismenaren eta edukien arabera berrikusi beharko da; agindu horren bidez, foru-sektore publikoko dirulaguntzen justifikazioko kontuak berrikusteko lanak egiteko kontu-auditoreen jardun-arauak onartzen dira. Bada, justifikazioko kontuak, gutxienez, jarraian adieraziko den informazioa jaso beharko du, eta diruz lagundutako proiektu komunikatiboari dagokion onuradunaren jardueraren zatiari buruzkoa baino ez da izango.

- a) Eginiko jarduerak justifikatzeko memoria.
- b) Eginiko proiektu komunikatiboaren kostua justifikatzen duen txosten ekonomikoa (eredua Euskara Zerbitzutik bidaliko da), honako alderdi hauek jasoko dituen:

- 1) Eginiko proiektuari egotzitako gastu eta sarreraren egoera-orria.
- 2) Aurreko 1. apartatuan adierazitako gastuen egoera-orriko kontzeptu bakoitzeko, diruz lagundutako proiektuaren gastuen zerrenda sailkatu bat egingo da, hartzekoduna, agiri-zenbakia, zenbatekoa eta igorpen-zein ordainketa-eguna jasotzen dituen. Justifikazioa egiteko epea amaitzen den egunean ordainduta dauden gastuak baino ez dira kontuan hartuko.

Enpresen kasuan, berankortasunari buruz aplikatzekoa den araudian aurreikusitako epeetan egindako ordainketen fakturak eta dokumentuak soilik aurkeztu ahal izango dira.

Egiaztagirien eta fakturen zerrenda sailkatu hori, zeinean haien zenbatekoak eta dagokien aurrekontuaren partida adieraziko diren, oinarritzat hartuko du auditoreak proiektuaren amaierako aurrekontua gauzatzat jotzeko.

- 3) Sarreraren egoera-orriko partida bakoitzeko, aurreko 1) apartatuan adierazitako diru-sarreraren zerrenda sailkatu bat egingo da (dirulaguntzena eta bestelako sarrerena), zenbatekoa eta jatorria adierazten dituen.

Auditoreak zerrenda hori ere oinarritzat hartuko du proiektuaren betearazitako aurrekontua orekatua den ebazteko.

- c) Bestalde, dokumentu hauek erantsi beharko zaizkio proiektuaren justifikazioko kontuari:

- 1) Entitate eskatzailean behar besteko ahalmena duen pertsona batek sinatutako zinpeko aitorpena, honako hau egiaztatzen duena: diruz lagundutako proiektuari egotzi ahal zaizkion sarrera bakarrak 3) apartatuan berariaz adierazitakoak dira.
- 2) Adieraziko da zein irizpide erabili diren aurreko 2) apartatuan adierazten diren kostu orokorrak eta/edo zeharkako kostuak banatzeko.
- 3) Onuradunak gutxienez hiru hornitzailek egin dizkioten eskaintzak justifikatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu, baldin eta administrazio-kontrataziorako araudian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen badira (Diru-laguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikulua), salbu eta kontratuaren ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago halakorik egin dezakeen erakunde nahikorik edo gastua eskabidea aurkeztu aurretik egin bada. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, memoria baten bidez justifikatu beharko da zergatik egin den aukeratutako hornitzailearen alde.



- 4) Hala badagokio, diruz lagundutako jardueraren kostuari dagokionez finantzaketa gehiegizkoa izan daitekeela identifikatzea.
 - 5) Proiektua gauzatzeko prestatutako esku-egitarauak, kartelak, argazkiak, argitalpenak, ikus-entzunezko zein informatikako materiala eta bestelako dokumentazio grafikoa; haietan, erraz ikusteko eran agertu behar da jarduera horretarako dirulaguntza eman duela Bizkaiko Foru Aldundiak. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-elementuak sartuko dira material horietan, foru-dekretu honen 18. oinarriaren e) letran ezarritakoarekin bat etorrira. Laguntza eman dela jakinarazi ondoren egindako jarduerari bakarrik dagokie betebeharrak.
- d) Proiektu komunikatiboa zer motatakoa den:
- 1) Jarduera nagusia paperean eta digitalki egiten badute:
 - Onuradunak paperean bidali beharko dizkio Euskara Zerbitzuari 2026. urtean banatutako zenbaki eta gehigarri guztiak, salbu eta eskabidearekin batera bidali dituenak, 6.2.f)1 oinarrian zehaztutako moduan.
 - Zehazki, eta 17.2.b)2) oinarriaren arabera egin ez badu, onuradunak zehaztu egin beharko ditu inprimatze- eta banaketa-gastuak: zehaztu beharko du gastuon zenbatekoa eta inprimatu zein banatutako aleen kopurua, kopuru horiek sorraraziko baitituzte faktura edo gastu-egiaztagiri bakoitzean jasotako zenbatekoak.
 - Jarduera nagusia paperean egiten duen proiektuaren zati digitalari dagokionez, onuradunak 2026an Interneten argitaratutako edukien (albisteak eta ikus-entzunezkoak) zerrenda bat erantsi beharko du, argitalpen-daren arabera ordenatuta.
 - Halaber, kontratatu dituen langileen eta laguntzaileen zerrenda erantsi beharko du (langileen kategoria, kontratu-harremanaren hasiera- eta amaiera-data eta arduraldia zehaztuta).
 - 2) Jarduera nagusia digitala bada:
 - Onuradunak 2026an Interneten argitaratutako edukien (albisteak eta ikus-entzunezkoak) zerrenda bat erantsi beharko du, argitalpen-daren arabera ordenatuta.
 - Halaber, kontratatu dituen langileen eta laguntzaileen zerrenda erantsi beharko du (langileen kategoria, kontratu-harremanaren hasiera- eta amaiera-data eta arduraldia zehaztuta).
 - 3) Jarduera nagusia ikus-entzunezkoa bada:
 - Onuradunak bere programazioaren lagin zehatz bat erantsi beharko du.
 - Onuradunak 2026an Interneten argitaratutako edukien (albisteak eta ikus-entzunezkoak) zerrenda bat erantsi beharko du, argitalpen-daren arabera ordenatuta.
 - Halaber, kontratatu dituen langileen eta laguntzaileen zerrenda erantsi beharko du (langileen kategoria, kontratu-harremanaren hasiera- eta amaiera-data eta arduraldia zehaztuta).
4. Onuradunak aurkeztutako justifikazioa ebaluatzeko, jarraipen-batzorde bat izendatu ahal izango da, proiektua epaimahai kalifikatzaileak baloratutako baldintzetan garatu den aztertzeke.
- Kasu horretan, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuak izendatuko ditu jarraipen-batzordeko kideak, foru-agindu bidez. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoa beteko da.



Era berean, batzordeko kideek behar besteko gaitasun teknikoa, administratiboa, funtzionala eta zuzendaritzakoa izango dute deialdi honen xede diren proiektu komunikatiboei dagokien justifikazioa aurkezteko baldintzak behar bezala baloratzeko.

18. oinarria. — Dirulaguntzaren onuradunaren beste betebeharrak

Onuradunak betebeharrak hauek ere izango ditu:

- a) Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu den edozein alderdi objektibo edo subjektibok aldagaitaririk izan badu, horren berri ematea Euskara Zerbitzuari, egoitza elektronikoaren bitartez.
- b) Jardueraren hasiera-dataren eta amaiera-dataren berri ematea Euskara Zerbitzuari, egoitza elektronikoaren bitartez. Halaber, erraztu egin beharko ditu diruz lagundutako jarduera kontrolatzeko, haren jarraipena egiteko edo jarduera ikusatzeko eginkizunak edo ahalmenak gauzatzeko lanak.
- c) Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailari laguntzea, hala eskatzen bazaio, eta erakundearen gaineko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).
- d) Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak, Ogasun eta Finantzen Foru Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen-jardueren menpe jartzea.
- e) Proiektu komunikatiboak Bizkaiko Foru Aldundiaren babesaren agerrazki beharko du dirulaguntza eman ondoren editatutako material guztietan eta jendaurreko agerraldi guztietan, eta, horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-irudiak baliatuko ditu nahitaez. Bizkaiko Foru Aldundiaren babes horrek ikusgai egon behar du proiektu komunikatiboaren leku nabarmen batean, eta horretarako, baldintza hauek bete beharko dira:
 - 1) Jarduera nagusia paperean eta digitalki egiten duten proiektu komunikatiboen kasuan, honako hauek jaso beharko ditu:
 - Euskararen txantxangorriaren irudia.
 - Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa. Horrekin batera, honako esaldi hau, hitzez hitz: «Hedabide honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du» edo «Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako hedabidea».
 - Proiektuaren bertsio digitalean, logotipoa eta hitzez hitzeko esaldi bera jarri beharko dira, argitalpenaren kredituak (editorea, helbidea, erredakzioa, ale-kopurua, etab.) adierazten diren leku berean, eta, hori ezinezkoa bada, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritza Nagusiarekin adostuko du zein den lekurik egokiena dagokion garrantzia eta ikusgarritasuna izan dezan.
 - 2) Jarduera nagusia paperean egiten duten proiektu komunikatiboen kasuan, honako hauek jaso beharko ditu:
 - Euskararen txantxangorriaren irudia.
 - Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa. Horrekin batera, honako esaldi hau, hitzez hitz: «Hedabide honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du» edo «Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako hedabidea». Logotipo hori argitalpenaren kredituak (editorea, helbidea, erredakzioa, ale-kopurua, etab.) adierazten diren leku berean jarriko da, eta, hori ezinezkoa bada, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritza Nagusiarekin adostuko du zein den lekurik egokiena dagokion garrantzia eta ikusgarritasuna izan dezan.
 - 3) Jarduera nagusia ikus-entzunezkoa duten proiektu komunikatiboen kasuan, honako hauek jaso beharko ditu:
 - Euskararen txantxangorriaren irudia.



- Publizitate-ohar bat, Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoarekin. Horrekin batera, honako esaldi hau, hitzez hitz: «Hedabide honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du» edo «Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako hedabidea». Publizitate-ohar hori gutxienez egunean 4 aldiz txertatuko da: birritan ikus-entzule gehien dagoen ordutegian (21:00-24:00), hirugarrenez goizean eta laugarrenez eguerdian.
 - Proiektuaren bertsio digitalean, logotipoa eta hitzez hitzeko esaldi bera jarri beharko dira, hedabidearen kredituak (editorea, helbidea, erredakzioa, ale-kopurua, etab.) adierazten diren leku berean, eta, hori ezinezkoa bada, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritza Nagusiarekin adostuko du zein den lekurik egokiena dagokion garrantzia eta ikusgarritasuna izan dezan.
- f) Onuradunak gutxienez euskaraz egin beharko ditu diruz lagundutako argitalpenaren publizitatea eta kanpo-komunikazio guztia.
 - g) Bizkaiko Foru Aldundiari dohainik eta eskusibitaterik gabe lagatzea aurkeztutako dokumentazioan dagoen informazio tekniko eta grafikoa erabiltzeko eskubidea, informazio hori zabaltzeko edo/eta argitaratzeko, edozein baliabide edo formatu bibliografiko, ikus-entzunezko edo informatiko erabiliz edo teknikaren erabilerak ahalbidetzen duen beste edozein erabiliz.
 - h) Edozein kasutan ere, onuradunak beste interesdun batzuen aurretik eman behar dio lehentasuna Foru Aldundiari, diruz lagundutako esku-hartzeari buruzko memoria argitaratzeko.
 - i) Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritza Nagusiak deitutako bilera, foro eta gainerako koordinazio-ekitaldietara joatea.
 - j) Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizioan, sarbidean, kontratazioan eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasunean eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egitearen arloan, lanaren kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikalean, ordezkaritza eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatuta.
 - k) Emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa balioki-deak izan daitezen zaintzea, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.
 - l) Diruz lagundutako proiektua garatzen ari den bitartean hizkera sexistarik ez erabiltzea sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan (idatzietan, irudietan, eta abarretan), eta sortzen den pertsonen buruzko edozein estatistiketan datuak sexuaren arabera bereizita jasotzea, hala ezartzen baitu arlo horretan gorde behar diren printzipio nagusiak jasotzen dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3. artikulua.
 - m) Egiaztatzea, hala dagokionean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragin-garrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat datorren plan bat dutela emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta benetan aplikatzen dutela. Horretarako, betebeharrak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute justifikazioarekin batera.
 - n) Hala badagokio, lanean sexu-askatasunaren eta osotasun moralaren aurkako delituak eta bestelako jokabideak saihesteko lan-baldintzak sustatu beharko dira, arreta berezia jarrita sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren, eremu digitalean egiten direnak barne.



- ñ) Enpresen kasuan, onuraduna behartuta dago enpresa-deslokalizaziorik ez egite-
ra, martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- o) Deialdi honi dagokionez, foru-dirulaguntza baten onuradunek bete egin behar
dituzte 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan eta Diru-laguntzen Erregelamen-
duaren 53. artikuluan azpikontratazioa dela-eta zehazten diren betekizunak eta
debekuak. Gehienez ere, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren %90 az-
pikontratatu ahal izango da.

Oinarri hauen ondorioetarako, azpikontrataziotzat hartuko da dirulaguntza-
ren erakunde onuradunak hirugarrenekin dirulaguntzaren xede den jarduera
oso-osorik edo zati batean gauzatzea. Apartatu honetatik kanpo geratzen dira
diruz lagundutako jarduera beren kabuz egiteko nahitaez egin beharreko kontra-
tazioari dagozkion gastuak.

Inola ere ezingo dira azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handi-
tu arren jarduera horri balio erantsirik ez dakarkioten jarduketak.

Era berean, onuradunak ezin izango ditu diruz lagundutako jarduerak azpikontra-
tatu honako hauekin:

- 1) Dirulaguntzen onuradun izatea eragozten duen egoeraren batean dauden
pertsonek edo erakundeak.
- 2) Kontratatu nahi den jarduerarako beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten
pertsonek edo erakundeak.

Hirugarrenekin hitzarturiko jarduera dirulaguntzaren zenbatekoaren %20tik gora-
koa bada, eta zenbateko hori 60.000,00 euro baino handiagoa bada, azpikontra-
tazioak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- 1) Kontratua idatziz egin beharko da.
- 2) Kontratua egin baino lehen, dirulaguntza ematen duen erakundeak baimena
eman beharko du, oinarri arautzaileetan zehazten den moduan.

Ezingo da kontraturik zatitu, hari dagokion zenbatekoa gutxitu eta aurreko apar-
tatuko betekizunak bete beharra saihesteko.

Nolanahi ere, eta dirulaguntzaren zenbatekoa gorabehera, diruz lagundutako
jarduera osorik edo partzialki gauzatzea onuradunarekin lotutako pertsona edo
erakundeekin hitzartzen denean, beharrezkoa izango da:

- 1) Kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egitea. Horretarako,
onuradunak gutxienez ere hiru hornitzailei eskatu beharko die eskaintza
aldez aurretik, salbu eta azpikontratutako jardueren ezaugarri bereziak di-
rela-eta merkatuan ez badago halakoak ematen dituen nahikoa erakunderik
edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.
 - 2) Organo emailearen alde aurreko baimena lortzea.
- p) Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra
arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan eta Bizkai-
ko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsita-
ko Diru-laguntzen Erregelamenduaren 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarrita-
ko gainerakoak.

19. oinarria. — Itzulketa

1. Jasotako dirulaguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli egin beharko
dira, foru-dekretu honetan ezarritako betebeharren bat betetzen ez denean, edo Foru
Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen
maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo Bizkaiko Foru Aldundiaren
martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregela-
menduan aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean, besteak beste:

- a) Dirulaguntza lortzeko, bete beharreko baldintzak faltsutu edo laguntza jasotzea
galaraziko luketen datuak ezkutatzen direnean.



- b) Xedea, jarduera, proiektua edo dirulaguntza emateko funtsa den jokaera oso-osorik edo zati batean betetzen ez denean.
- c) Justifikazioaren betebeharra betetzen ez denean.
- d) Justifikaziorik egiten ez denean edo justifikazio hori behar adinakoa ez denean, justifikatu gabeko dirulaguntzaren zatia itzuli egin beharko da, dagozkion berandutze-interesak barne, Euskara Zerbitzuak horretarako errekerimendua egin ondoren.
- e) Ezarritako kontrol-jarduketak direla eta, ezetza ematen denean edo eragozpenak ipintzen direnean.
- f) Foru-dekretu honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez direnean.

Era berean, eta hala badagokio, enpresaren deslokalizazioa deklaratzeko ere dirulaguntza itzultzeko arrazoi izango da, gai hori arautzen duen foru-araudian xedatutakoa aplikatuz.

2. Dirulaguntza jaso duen jarduketaren kostua baino finantzaketa handiagoa jasotzen bada, laguntza itzuli egin beharko da.

Itzulketaren prozedura aplikatzeko den dirulaguntzak arautzeko araudian xedatutakoa araberaren arabera izapidetuko da.

20. oinarria. — *Datu pertsonalen babesa*

Aplikatu beharrekoa izango da Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 208ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta aurrekoetan xedatzen ez denerako edo aurrekoen ordez aplikatu beharreko gainerako araudia.

21. oinarria. — *Aurrekontuko partida*

1. Deialdi honetako dirulaguntzak emateko 2026. urtean indarrean dagoen aurrekontu-muga honako hau da:

- a) Bostehun eta berrogei mila euro (540.000 euro), merkataritza-sozietate, sozietate kooperatibo, banakako enpresaburu eta profesionalentzat, 2026ko ekitaldiko partida honen kargura: G/0406/335106/44300 aurrekontu-partida, 2008/0041 proiektua.
- b) Zazpiehun eta hirurogeita hemeretzi mila ehun eta berrogeita hamar euro (779.150 euro), irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuei dirulaguntzak emateko, 2026ko ekitaldiko partida honen kargura: G/0406/335106/45100 aurrekontu-partida, 2008/0041 proiektua.

Banaketa hori gutxi gorabeherakoa izango da, eta, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikulua 4. eta 5. apartatuen arabera, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuaren foru-agindu bidez edo Euskara zuzendari nagusiaren ebazpen bidez aldatu ahal izango da, deialdia ebatzi baino lehen. Erabilgarri dauden kredituen adierazpena eta behin betiko banaketa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, gastu-espedientearen egin beharreko aldaketak egin ondoren, baina argitaratze horrek ez du ekarriko ez eskaera berriak aurkezteko epea zabaltzerik, ez ebazteko beste epe bat zenbatzen hasterik.

2. Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bateginaren 56.3 artikuluan ezarritakoaren arabera (foru-arau hori abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartu zen), baldintza bat bete beharko da foru-dekretu honen babesean emaniko dirulaguntzak baliodun izateko: kreditu egokia eta nahikoa izatea kasuan kasuko ekitaldian, foru-dekretutik eratorritako betebeharrak finantzatzeko. Halakorik ez bada, balio gabe geratuko dira dirulaguntzak.

3. Deialdiko eskabide guztiak ebatzi ondoren, guztira dirulaguntzetarako emandako diru-kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa bada, gastu-baimenaren ezeztatena tramitatuko da, soberan den zenbatekoan.